

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2A, defensa de la programación didáctica / ámbito de FP 2A proba, programazio didaktikoaren defentsa / LHko eremua
Resolución 249/2024, de 15 de octubre / 249/2024 Ebazpena, urriaren 15ekoa	

0590 - INFORMÁTICA / EUSKERA

0590 - INFORMATIKA / EUSKARA

Gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzarako teknikak.

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Baldintzak - (Descuento / murrizketa)	5 ptos. / puntu
Baldintza formalak betetzen ez baditu Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafikoa, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoa ez den beste neurri bat erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu egingen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.	Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
Antolaketa	1 pto. / puntu
Programazioa curriculumean sartzea, justifikatzea eta testuinguruan jartzea VII. eranskinean ezarritako baldintzen arabera. Kontuan hartu beharko da programazioa ea 1. edo 2. mailan kokatzen den. Espezialitateak modulu batean edo batzuetan irakaslana duen formakuntza zikloen erabilgarriak diren curriculumak. Sarrera, justifikazioa eta testuingurua. Helburuekiko lotura eta curriculum erabilgarrien ikaskuntzaren emaitzak. Espezialitatearekin lotutako ikasgai edo lanbide-modulu bat aipatzen da, edo, hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiliz gero, hainbat ikasgai edo lanbide-modulu aipatzen dira, eta horien artean sartzen da helburu duen espezialitatearekin lotutakoa.	0,25 ptos. / puntu
Ongi planteatuak daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika 1.- Garatzeko funtsezko elementuen arteko lotura (titulua, lanbide-profila, testuingurua, gaitasunak, helburuak, ikaskuntzaren emaitzak, edukiak, metodologia, aniztasunarekiko arreta eta ebaluazioa) 2.- Gaitasunak garatzeko edukien sekuentziazio zuzena.	0,75 ptos. / puntu

Eduki teknikoa	1,5 ptos. / puntu
Programazioak araudian ezarritako curriculumaren elementuak zehazten ditu, VII. eranskinean ezarritako baldintzetan, aipatzen duen hezkuntza-etaparen mailarekin bat etorriz. Kontuan hartu beharko da programazioa 1. mailan edo 2. mailan kokatzen den. 1.- Programazioaren xede den erabilgarria den curriculum, maila eta testuingururako (ikastetxea/taldea) egokitzapena. 2.- Ikaskuntzaren emaitzen, helburuen, edukien eta ebaluazio irizpideen arteko koherentzia. 3.- Profil profesionalarekin zerikusia duen modulua. 4.- Ikasmaita bateko programazioa. 5.- Curriculumaren eta ikastetxearen esparrua (egitekoen proiektua, hezkuntza proiektua): programazioaren oinarriak.	0,75 ptos. / puntu
Programazioak honako hauek zehaztu beharko ditu: ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, ebaluazioarekin duten lotura, hezkuntza-mailari dagozkion gaitasunak eskuratzeko eta zikloko gaitasun orokorra, lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta sozialak eta gaitasun-unitateenak eta, hala badagokio, lanbide-kualifikazioak eskuratzeko ekarpena. 1.- Ebaluazio irizpideak, adierazleak eta prozesuak. Ebaluazioarekin duten lotura. 2.- Zer neurritan laguntzen duen hezkuntza mailari dagozkion gaitasunak eskuratzen (edo zikloko gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, eta gaitasun-unitateen gaitasunak).	0,75 ptos. / puntu
Eduki didaktikoa	5,5 ptos. / puntu
Ikastarorako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.	2 ptos. / puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.	2 ptos. / puntu
Aniztasunari arreta emateko neurriak, hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen erantzunetan arreta berezia jarrita.	1,5 ptos. / puntu
Laguntzeko estrategia metodologikoak	
Komunikazio Gaitasuna	2 ptos. / puntu
Ideiak era egituratu eta ulergarrian adieraztea, eta testuinguru komunikatiboari dagokion formaltasun-mailarekin hitz egiteko gaitasuna izatea.	1 pto. / puntu
Epaimahai ebaluatzailearen galderen erantzunen egokitasuna eta koherentzia.	1 pto. / puntu
Programazio plagiatuak aurkeztuz gero edo zenbait izangaik programazio didaktiko bera aurkeztuz gero, izangaia edo izangaia hautapen prozeduratik kanpo geldituko dira. Lanbide Heziketako irakaskuntzei buruzko programazio didaktikoa, ziklo jakin batzuen curriculumetan oinarrituko da. Izan ere, helburu duen espezialitateak irakaslana izan behar du ziklo horien moduluetan. Horrela ez bada, programazio didaktikoari emaniko kalifikazioa 0 puntukoa izango da.	